

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2012ko uztailaren 12a. IX. urtea. 2.383. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Jose txo Perez: «Eraikinak ahal den errealenak egiten saiatzen gara»

Google Earth-eko Model Your Town saria irabazi eta gero, hiru dimentsioko proiektuak egiteko ateak zabaldu zaizkie Jose txo Perez tolosarrari eta Pedro Domecq donostiarrari

Getaria hiru dimentsiotan egiteagatik jaso zuten saria Virtualsim egitasmoko kideek; Tolosako zenbait eraikin ere sartu dituzte Google Earth programan **4**



Jose txo Perez Tolosako zezen plazako diseinua erakusten ari dela. IMANOL GARCIA LANDA

Donostiako Jazzaldian tolosarrek euren lekua egin dute

Peachy Jokek hilaren 21ean joko du Zurriolan, eta Et Incarnatus Antony and The Johnsons-ekin batera ariko da, hilaren 22an **3**

Iñaki Gereñu

Peachy Joke

«Zerrendan izena eman eta nahiko azkar deitu ziguten»

Migel Zeberio

Et Incarnatus

«Orkestrarentzat 2012a nahiko urte oparoa izaten ari da»

Alegiako karmenetan gaur lehertuko da festa

Jai alternatiboak gaur hasiko dira Xantosen omenezko finalarekin; jai ofizialak, berriz, bihar hasiko dira eta 19:00etan jaurtiko du suziria Juan Joxe Agirrek **6**

Lan munduan euskaraz egiteko eskolak, NEL proiektuaren barruan

Duela hilabete ingurutik, astero-astero, hamabost bat pertsona elkartzen dira Tolosako Ereite elkartearen egoitzan Nik ere Euskaraz Lanean egitasmoan parte hartzeko; munduko hainbat txokotako pertsonak biltzen dira **2**



Astero-astero biltzen dira hainbat jatorriko pertsonak, euskaraz egiteko. I.U.

Auzitegi Gorenko fiskaltzak Castrori zigorra handitzea eskatu du

Lazkaoko PSE-EEren egoitzari egindako erasoaz aztertu dute; Espainiako Auzitegi Nazionalak, urtarrean, bederatzi urteko zigorra jarri zion billabonatarri **5**

Munduko hamaika txokotako hamabost lagun euskara ikasten hasi ziren, duela hilabete inguru, Nik ere Euskaraz Lanean egitasmoaren barruan, Ereite elkarteak Tolosan duen egoitzan.

Euskaraz lan egin eta bizitzeko

Izteia Urkizu

Duela hilabete inguru hasi ziren, Ereite elkarteak Tolosan duen egoitzan, hamabost bat lagun euskara ikasten.

Munduko hainbat txokotatik datoz, beste ama hizkuntza batzuk dituzte, eta azalaren kolorea ere bai. Guztiek, ordea, badute batzen dituen zerbait: Euskal Herrian bizi eta lan egiten dute, eta euskaraz ikasi nahi dute.

Tolosako Udalak antolatuta, eta Banaiz Bagara elkartearen eta EMUNen eskutik, Nik ere Euskaraz Lanean (NEL) egitasmoan parte hartzen ari dira euskara ikasle hauek. Naiara Etxeberria irakaslearen eskutik, aste-artero-asteartero jasotzen dituzte eskolak, helburu garbi batekin: «Euskara ez dakiten langileak, bezeroak euskaraz artatzeko gaitzea da gure nahia». Izan ere, proiektua bereziki zuzendua dago merkataritzako eta ostalaritzako langileei.

Etxeberriak azaldu duenez, iaz lehen froga pilotua egin zuten Donostian, antzeko egitasmo batekin, eta «emaitza txukunak eman zituela ikusita, egitasmoa zabaltea» erabaki zuten. Horrela beraz, Banaiz Bagara elkartearen metodologia, EMUNen lan munduko eta hizkuntza portaren inguruko esperientziarekin uztartzen dute saioetan. «Merkatari eta ostalariek lanerako behar duten hizkuntza da lantzen dena, eta euskara ikasteaz gain, euskararekiko eta hizkuntzarekiko jarrrerak ere lantzen dira, ezinbestekoa iruditzen baitzaigu ikasleen motibazioa, hizkuntza bat ikasi eta honen erabilera bultzatzeko», nabarmendu du Naiara Etxeberriak.

Egitasmoaren aurkezpenean Inaki Irazabalbeitia Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeko zinegotziak azpimarratu zenez, «programa berritzailea» da



Beren lanbideko errealitatera egokitutako eduki eta praktikak lantzen dituzte eskolatan. I. URKIZU

martxan dagoena, eta Tolosa eta Tolosalderako egokia iruditu zaio udalari: «Inguru euskalduna izanik, egokia eta beharrezkoa iruditzen zaigu, azken urteotan eskualdera etorri diren pertsona horiek euskarara eta euskal kulturara hurbiltzeko».

Batetik, etorkinak eurak erosoago sentitzea da jomugetakoa bat, eta, era berean, euskaraz egiteko gaitasuna eskuratzen badute, «euskararen geroa ere ziurtatzeko bidea» izango dela uste dute.

Hizkuntza jarreraren garrantzia
Astean bi orduko saio bat egiten dute ikasleek. «Enplegatuekin burutzen ditugun saioak praktikakoak direnez, taberna eta dendetako elkarrizketetan oinarritutako adibideak lantzen ditugu esko-

letan», dio Naiara Etxeberria irakasleak.

Honenbestez, erabat zentratzen dira, langileek egunerokoan eta lanean erabiltzen dituzten hizkuntza funtzioetan: agurrak nola egin, nola eskatu, nola erantzun, prezioak nola esan, ... Naiara

Jatorri askotako pertsonak euskarak batu izana nabarmentzen dute

ra Etxeberria irakasleak denda edo tabernetako elkarrizketetan simulatzeak egiten ditu ikasleekin, hauek trebatu eta lotsa galtzeko: «Astez aste helburu txikiak jartzen ditugu, errealitatean probak egiten has daitezke».

Ikasleek esparru profesionale-ra mugaturiko lexiko eta mintza praktikez gain, ordea, euskara

ikaslearen motibazioak ere pisu handia du NEL egitasmoan: «Gure ustez, oinarritzakoa da hizkuntza batekiko jarrera ona izatea, ikasi ahal izateko», azaldu du Etxeberriak. Hau lortze bidean, lanketa bereziak egiten dituzte ikasleen beren ama hizkuntzen inguruan, eta hizkuntza ohituren inguruan gogoeta ere egiten dute; hitz batean, hizkuntza jarrerak ere, hizkuntza bera ezagutzearen garrantzia bera duela helarazten saiatzen dira.

Hizkuntza jarrera honen hari-ra, hain jatorri desberdinetako pertsonak mahai beraren bueltan biltzearen garrantziaz ere ari-zen dira. «Tolosan bertan jaiotako bakarren bat badagoen arren, ikasle gehienak kanpotik etorritakoak dira; batzuek urte asko daramatzate hemen, eta beste batzuek, berriz, ez hainbeste. Galizia, Herrialde Katalanak, San-

tander, Asturias, Kuba, Maroko, Sevilla, Honduras, Nikaragua, ... Munduko hainbat txokotako jendea elkartzen da astero, denok batzen gaituen helburua lortzeko bidean: euskara ikastea. Askotan azpimarratzen dugun ideia da hori, jatorri askotako pertsonak garena, eta euskarak batu egiten gaituela», nabarmendu du Etxeberriak.

Klaseetatik kaleko bizitzara

Langileak bezeroekin euskaraz aritzera iristeko nahia duten arren, Etxeberriak argi dauka «ezinezkoa dela euskara bi orduko hamasei saiotan ikastea».

Hau dela eta, NEL programak badu bigarren zati moduko bat. Hamasei saio hauek egin eta gero ere, langileek euskara ikasten jarrai dezaten, antolatzaile eta irakasleek enplegatzaileekin lan egin nahi dute: «Enplegatzaileekin jorratuko dugu, euren nola lagun diezaieketen lankide edo enplegatuei eguneroko lan orduak probestuz, euskara ikasteko prozesuak aurrera jarraitzeko dezan».

Irakasleak, garrantzia berezia eman dio zati honi: «Askotan ikasle hauek ez dute euskaraz hitz egiteko aukerarik izaten euren lanorduetatik kanpo, eta horregatik uste dugu inguruko asko egin dezaketekla, pertsona hauen jabekuntza prozesuan».



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Iragarki laburrak

ALOKAGAI

■ **Etxebizitza.** Villabona erdigunean 3 urteko babes ofizialeko etxebizitza eta garajea alokairuan Etxebideren baimenarekin. 2 logela, sukaldea eta bainugela. Igogailua. Terraza handia (11m). Oso argitsua eta

eguzkitsua. Tximinia ere badu. Zure errenta aitopeneraren araberako prezioa. Ez duzu etxe baten jabea izan behar. Kontratupean 2015era luzagarri. Aukera ezin hobea! Interesa dutenek, dei dezatela 620 40 83 80 telefono zenbakira.

Aurtengo Donostiako Jazzaldian musika tolosarrak izango du bere tarte. Peachy Joke taldea Zurriolan ariko da, eta Et Incarnatus orkestrak, berriz, Antony and The Johnsonsekin eskainiko du kontzertua Kursaallean.

Iñaki Gereñu • Peachy Joke taldeko kidea

«Donostiako eszenatokirik onenetakoan izango da kontzertua, hondartzako agertoki handian»

Izuea Urkizu

Peachy Joke talde tolosarrak datorren uztailaren 21ean eskainiko du kontzertua, Jazzaldiko Heineken agertoki berdean, 13:00ean. Zurriolako hondartzako oholztatik, zuzenean Madrilgo beste emanaldi batera joan beharko dutela azaldu du Iñaki Gereñuk; azken diska argitaratu zuten ez geroztik agenda bete-betea dute.

Nolatan izan duzue Donostiako Heineken Jazzaldian kontzertua eskaintzeko aukera?

Donostiako antolatzaileek, zerrenda moduko bat ireki zuten, Euskal Herriko taldeek Donostian jo zezaten, bai Jazzaldian, eta baita irailean Igeldon izango den Kutxa Kultur Festival-en ere. Izan ere, lotuta daude bi jaialdiak. Guri, egia esan, gure managerrak deitu zigun, zerrenda horretan gure izena eman eta nahiko azkar deitu zigutela esanez.

Zuen emanaldi asko Euskal Herriko kanpo izaten diren arren, Donostiako Jazzaldian jotzea, nazioarteko ikus-entzuleekin, aukera on bat izan daitekeela uste duzue?

Guretzat kontzertu bat gehiago da. Egia da, Donostiako eszenatokirik onenean izango dela kontzertua, hondartzako agertoki berdean, handiengan; esperientzia ona izango da, beraz. Hala ere, guk 13:00ean joko dugu, eta beste bi talderen ondoren ariko gara. Larunbata izanda, eguraldi ona eginez gero, jendea izango da gu ikusten, eta ea ondo ateratzen den.

Ikasturte hasieran argitaratu zenuen *Asian Tiger Mosquito* diska. Nola joan dira azken hilabeteak?

Egia esan, nahiko ondo joan da guztia. Gure ustez, orain arte argitaratu dugun diskorik onena edo landuena izan da azken hau, eta hori antzeman dugu, besteak beste, izan duen oihartzunaren aldetik, egin dizkiguten elkarrizketengatik, hedabideek izan duten interesagatik, eta abar.

Eta kontzertuei dagokienez?

Diskoaren harira sortu zaizkigun kontzertuak asko izan dira, leku askotan jo baitugu. Uztailaren bertan, beste bi jaialditan jo behar dugu, eta abuztuaren jaialdi txiki batean eta Zarauzko jailetan joko



R. CALVO

dugu. Uda, beraz, lasaia izango da, baina irailean berriro kontzertu asko ditugu agendan. Oso pozik gaude honegatik guztiagatik. **Eta aurrera begirako proiektuekin lanean ari al zarete jada?**

Duela aste pare bat single berri bat argitaratu genuen, *The Papas & The Mamas* izenekoa, eta era berean, lau abesti zahar formatu akustikoan grabatuta. Udan gaudela kontuan izanda, behar bada

ez da garairik onena aipaturikoa kaleratzeko, baina hedabideetatik-eta deitu digute, eta ondo doa guztia. Single berriaz gain, ordea,

«Orain arte argitaratu dugun diskorik onena eta landuena izan da azken hau»

«Diskoaren harira sortu zaizkigun kontzertuak asko izan dira»

«Taldean aldaketa batzuk izan dira, eta oraindik entsegu asko behar ditugu»

badira zenbait ideia abesti berriei buruz, eta orain hasi gara grabaketa berri posible batez hitz egiten; 2013an estudioan sartu nahiko genuke. Dena den, ez dakigu zer gertatuko den; taldean aldatzeko ere izan berri ditugu, eta beraz, oraindik entsegu asko behar ditugu.

Miguel Zeberio • Et Incarnatus orkestrako zuzendaria

«Ohore bat izango da, eta azken urteotako lanaren errekonozimendua ere bai»

I. Urkizu

Aurtengo jazzaldiko izen handietako batekin oholta berean ariko da Et Incarnatus orkestra: Antony and The Johnsonsekin eskainiko dute kontzertua. Miguel Zeberio zuzendariak, hilaren 22an Kursaallean eskainiko dutena pop ukitu nabarmeneko emanaldia izango dela dio.

Nolatan suertatu zaio orkestrari emanaldi honetan parte hartzeko aukera?

Urte hasieran jaso genuen Donostiko Jazzaldiko antolatzaileen deia. Kontzertu hau egiteko asmoa zutela azaldu ziguten, eta egia esan, hemen inguruan ez dago musika mota desberdinetan ohitua dagoen beste orkestrarik; horretan ari garen bakarretakoa gurea uste dut. Beraz, guri eskaini ziguten aukera. Duela lauzpabost urte ere jazzaldian parte hartu genuen beste emanaldi batean; hura jazz kontzertua izan zen, baina hilaren 22koak pop kutsu handiagoa izango du.



HITZA

Etazerdakarzuentzat, aurtengo jazzaldiko izen handietako batekin oholtzan aritza?

Ohore handia da, eta azken urteotan egin dugun lanaren errekonozimendu moduko bat badela ere uste dut. Eta bai, egia da, jaialdiko izarretako bat izango dela; mediatikoki, emanaldirik arrakastatsuenetakoa izango dela dirudi, gainera. Izan ere, zalantzarik

gabe, oso musikari ona eta goi mailakoa izateaz gain, gaur egun mundu mailan oso harrera ona duen musikaria da; ikusi besterik ez dago, sarrera guztiak bi egunetan nola agortu ziren, bai bertako eta baita kanpoko jendearen eskariz ere.

Kontzertu honetan parte hartzeak nolabaiteko bultzadarik emango dizuela uste duzu?

Egia esan, urte dezente daramatzagu jada lanean, eta ibilbide nahiko finkoa daramagu, gauzak etenik gabe eginez azken hamasei urteotan. Ez dakit bultzadarik izango ote dugun edo ez, izan ere, gauza hauek ez dira sekula jakiten. Lan ona egitea espero dut, eta horrek ordainen bat izatea. Sari pertsonala, esperientziagatik behintzat, ziur jasoko dugula.

Antony and The Johnsonsekin errepertorio bateratu eskainiko duzue?

Bera kontzertu hau eskainiz munduan zehar dabil, eta berak emanaldi horretarako orkestrari egokitutako 25 kantu inguruko sorta bat du. Horrela beraz, berak duen materiala guri bidali digu, eta guk obra horiek guztiak prestatu ditugu. Berak, emanaldiaren aurretik aukeratuko du kontzertuan zer jo nahi duen, eta aukera zabala izango dugu beraz. Hau, ordea, ohikoa izaten da horrelako elkarlanetan. Beraz, gure lana kantur horiek ondo prestatzea izango da.

Eta nola egingo dituzue entseguak?

Berak lantalde oso zabala eskatu du, eta 40 musikari ariko gara guztira orkestran; hori ez da oso gauza sinplea antolatzeko, eta beraz, Donostiako Antzoki Zaharrean egingo ditugu hainbat entsegu. Izan ere, ikuskizuneko beste zati garrantzitsu bat eszenografia izango dela uste dut: argiak, deko-

«Egia esan, nahiko urte oparora izaten ari da orkestrarentzat 2012a»

raziorako elementuak... Badirudi Antzoki Zaharrean frogara egin nahi dutela aurretik.

Emanaldi honez gain, Et Incarnatusen agenda beteta al dago?

Bai, bai. Egia esan, nahiko urte oparora izaten ari da, orkestrarentzat, 2012a. Abuztuaren 3an Zarautzen ariko gara Escuderoaren omenezko beste emanaldi batean, eta datorren ikasturte hasierarako ere baditugu jada, hainbat proiektu martxan. Kontua da, gure egitasmo gehienak bakarrik eta berriro errepikatzen ez direnak direla. Lana, beraz, handia izaten da, emanaldi bakoitzera disko orkestrak errepertorio berria prestatu behar izaten baitu.



Zezen plaza eta lurreamendi egoitza dira Josetxo Perez eta bere kideak Google Earth programan sartutako Tolosako bi eraikin. HITZA

Hiru dimentsioko herriak, pantaila bidez

Josetxo Perez tolosarrak eta Pedro Domecq donostiarrak Google Earth programako saria irabazi berri dute

Imanol Garcia Landa

Google Earth-ek antolatzen duen Model Your Town (euskaraz Eraiki Zure Hiria) lehiaketa irabazi dute orain gutxi Josetxo Perez tolosarrak eta Pedro Domecq donostiarrak Virtualsim izenpean, Getaria herria Interneten hiru dimentsiotan jartzeko egindako lanarengatik.

Google enpresak erreminta batzuk eskaintzen ditu Google Earth programaren gainean lan egiteko. Satellite bidezko mundu osoko argazki osatutako puzzle erraldoia da Google Earth. Perezek azaldu duenez, «Googlek ematen digu aukera lurzorua horretan eraikinarazteko. Kanpoko itxura ematen diogu programa baten bitartez, eta gero, beste programa batzuen bidez, bertan ateratako argazkiekin forraturatu egiten dugu». Perezek gaineratu duenez, «eraikinaraz ahal den errealenak egiten saiatzen gara, ahal ditugun xehetasun guztiak sartuz».

Getariakoaz gain, eskualdean ere zenbait herrietako eraikinaraz egin ditu Perezek. Tolosako lurreamendi egoitza, zezen plaza edo Sputnik eraikinaraz ikusi daitezke Google Earth-en. Beste batzuk egindako Tolosako zenbait eraikin ere ikusgai daude. Perez egun



Virtualsim taldeko kideek Getaria herri guztia hiru dimentsioetan eraiki dute; irudietan, proiektuaren bi ikuspegi. HITZA

Iruran bizi da eta bertako eraikinaraz batzuk ere egin ditu. Beren egitasmoak www.gipuzkoa3d.com helbidean dituzte ikusgai.

Informatikaria da Perez, eta enpresen mantenu informatikoa egiten du. Getariako herriarekin lortutako sariak aukerak zabalitzen ari zaizkie hiru dimentsioko proiektuak egiteko, eta asmoa dute alor horretatik enpresa jarduerara zabalteko. «Ateak zabalik

ditugu. Deitzen diguten lekuetatik interesa azaltzen dute, baina dirurik ez dutela esaten dute», azaldu du Perezek. «Ea datozen aurrekontuetan, Turismo Sailetik diru laguntzak ematen dizkieten udalei horrelako proiektuak egiteko. Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan gaude, eta helburua da formularen bat bilatzea herri txikiei bere burua munduan ezagutarazten laguntzeko».

Jendearen babesa

Model Your Town lehiaketara aurkeztu ondoren, Google-k lehenbizi profesionalen arteko hautaketa egin zuen, eta hautagai horiek finalera pasatu ziren. Irabazlea internet bidez aukeratu zen mundu osoko jendeak, eta boto

gehien lortzeko kanpaina abian jarri zuten Virtualsim kideek. Perez oso gustura dago lortutako sariarekin: «Alde batetik, finalera pasatzean, gure lana ona dela adierazten digute. Bestalde, jendearen erakundearen babesa jaso dugu bozketan».

Orain bi urte ere aurkeztu ziren Donostia hiru dimentsiotan eginez. Orduan hainbat taldeetako hamabost pertsonen artean aritu ziren, eta finalera ere pasa ziren, baina ez zuten asmatu marketing lana egiten lehen saria eskuratzeke. Bi urtez behin egiten da lehiaketa eta bietan finalera iristeak meritu handia duela nabarmendu du Perezek. Google Earth programa ezagutarazteko Getariako proiektua erabiltzen dutela mun-

du osoan azaldu du Perezek, eta gaineratu: «Getariako alkateak esan zuen moduan, Elkano getariarra izan zen lehena munduari itzulia ematen, eta orain Elkanoen jaioterria egongo da bi urte munduari itzulia emanez».

Getariako proiektuaren saria- rengatik 25.000 dolar (18.000 euro inguru) jasoko dituzte, baina ez dira berarentzat izango. «Eskola bati eman behar zaio dirua, eta noski, Getariako eskolari ematea pentsatu genuen», azaldu du Perezek. Irailean jasoko dute saria, eta horretarako Google-ko ordekaritza etorriko da. «Profesionalki oso polita izan da Getariaren proiektua, eta herritarrengandik jasotako berotasuna ere oso gustura hartu dugu», dio Perezek.

ERRETENGIBEL UDAL BAZKUNAK SALGAI DITU:

- Rondilla kalea, 3. zenbakian 4 etxebizitza tasatu eta merkataritzako 160 m²-ko lokal bat.
- Plaza Berria, 1. zenbakian etxebizitza bat.



Informazio gehiagorako deitu **618 77 29 54** telefono zenbakira.

Bihar hasiko dituzte herriko jaiak, baina ohiturari jarraituz egun bat lehenago hasiko dira festa alternatiboak

Eneritz Maiz Alegia

Alegian festarik bada, ez da zahagi ardorik falta izaten, eta noski, herriko jaietako egitarauan ere hutsik ez du ekiten. Alegiarrek Karmen jaiak ospatzen dituzte, eta jai ofizialei hasiera bihar emango bazaie ere, gaur hasiko dituzte jai alternatiboak.

Jai alternatiboak ospatzearena ohitura bilakatu da, Alegian. Festa ofizialei aurrea hartuz, gaur emango diete hasiera Xantosen omenezko finalak jokatu. Jarrera, sagardo dastatzea eta festetako lehen zahagi ardoa egingo dituzte. 22:30ean, Elortza eta Larrañaga trikitilariak izango dira.

Kirolarekin emango diete hasiera aurtengo Karmen jaiak, baina 19:00etan izango da alegiar guztiak zain izango dien unea. Urtero bezala, udaletxeko balkoitik botako dute suziria, eta aurtun, Juan Joxe Agirrearen eskutik izango da. Berea izango da festei hasiera emateko ardurua.

Plazan izango dira erraldoi eta buruhandiek eta baita Loatzo Musika eskolako txaranga ere. 19:45ean, Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzek beraien kontzertua eskainiko dute. Kar-

Zahagi ardorik gabe, ez dago Karmenik



Loatzo musika eskolako ikasleek emanaldia eskainiko dute jaietan; iaz ere (irudian) kontzertua eskaini zuten. E.M.

men egunaren bezperan ere, Txintxarri abesbatzakoei, *Salbea* abestuko dute elizan, 19:30ean.

Eta festetako lehen eguna izanik, 21:00etan, herriko zubian elkartuko dira guztiak, zahagi ardoan afaltzeko. 22:30ean, Alegia-ko II. Pilota Txapelketako finalak jokatu dira. Kadeteek lau t'erdian jokatu dute, eta Aburuzak eta Altunak neurtuko dituzte indarrak. Afizionatuen mailan, berriaz, Otamendi eta Telletxea bikoteak Gallurralde eta Rezustaren aurka jokatu du. Eta lehen eguna bukatzeko, 00:00etatik aurre-

ra, Matxura eta Lisabo taldeen kontzertuak izango dira, plazan.

Larunbata ere, egun bete-betea izango dute Alegiako txintxarriek. 09:00etako dianarekin batera arrantza lehiaketa izango da, eta bata bestearen atzetik izango dira ekitaldiak. 17:00etan festetako berrikuntza izango da, hau da, Orian ibaian baltsen jaitziera egingo dute. Sagardotegiko menua izango duen herri afaria egingo dute.

Igande goizean, kalejira, dantza eta Juan Joxe Agirreari omenaldia egingo dizkiote. Arratsaldean, ordea, umeek jolasak izan-

go dituzte, eta herri kirol jaialdiaz gozatzeko aukera izango da.

VII. Txintxarri Saria

Igande, 18:30ean, VII. Txintxarri Saria jokatu da Larraitx auzoko plazan. Bi talde osatu dituzte; alde batetik, Aimar Irigoien eta Izeta III.a harrijasotzaleak eta Josune Gorostidi eta Lurdes Insausti gipuzkoar trontzalarriak ariko dira eta, beste aldetik, Izeta II.a eta Izeta IV.a harriarekin, eta Itziar Nuñez eta Ana Lopez nafarrak, trontzarekin.

Harrijasotzen, 300 jasoaldi egin

beharko dituzte txanda librean. 125 kiloko zilindro kopa, 112,5 kiloko kubikoa, 1200 kiloko zilindro zaharra eta 100 kiloko bola erabiko dituzte. Trontzalarrien kasuan aldiz, bikote bakoitzak 30 korte egin beharko ditu. Ondoren, Euskadiko Lasto Jasotze Txapelketa jokatu da.

Eguna bukatzeko bertso saioa eta Los Rubi taldea izango dira. Astelehena Karmen eguna izango da, eta hurrek eta erretiratuek beraientzako ekitaldiak izango dituzte. Dantzaldia Iratzar taldearekin izango da, eta 00:00etan, Txintxarri doinuekin esango diete agur aurtengo jaiak.

'Bibalabirjen jaiak'

Alegiako Gaztetxeak eta Sutarrri Dantza taldeak antolatu dituzte Alegiako festa alternatiboak. Alegiako Bulebarren izaten dira, eta egunero izango da 21:00etan zahagi ardoa. Herri bazkaria eta herriko bertsolariak ere izango dira.

Ohi bezala musika izango da nagusi, eta ostiralean, Dj-en txanda izango da. Larunbatean, berriaz, Glaukoma Sound System, Atila y los Unos eta Bad Sound System taldeen kontzertuak izango dira. Igandean herriarren txanda izango da, eta taula gainean Manillares Iturriagako kideak izango dira. Ohi bezala, herriarren artean ikusmin handia piztuko dute Manillares Iturriaga taldeko kideak, izan ere, hauek josten diren lekuan, ez da alegiarrik falta izaten.

↓ Alegiako Karmen jaien egitaraua

UZTAILAK 13, OSTIRALA

- **09:00.** Infantil eta alebin mailako 3X3 Saskibaloia Txapelketa izango da eskolako patioan.
- **17:00.** Umeen futbito Santes Torneoaren finala jokatu da.
- **18:30.** Kartel lehiaketan parte hartu duten marrazkien erakusketa izango da udaletxeko arkupean.
- **18:30.** Ordiziako erraldoi eta buruhandiek, herriko txistulari eta trikitilariekin eta Giroarte dultzaina taldearekin kalejira egingo dute Larraitx auzotik herriko plazaraino.
- **19:00.** Txupinazoa Juan Joxe Agirrearen eskutik izango da. Txintxarriaren jaitziera egingo dute jaiak hasiera emateko.
- **19:30.** Loatzo Musika eskolako txaranga kale kale ibiliko da festa giroa zabalduz.
- **19:45.** Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzen kontzertua izango da, elizan.
- **21:00.** Zahagi ardoa egingo dute, zubian.
- **22:30.** Pilota partidak: Alegia-ko II. pilota txapelketako finalak. Afizionatuak binaka eta kadeteak lau t'erdian.
- **00:00.** Matxura eta Lisabo taldeen kontzertuak, plazan.

UZTAILAK 14, LARUNBATA

- **09:00.** Herriko txistularien eta trikitilarien diana.
 - **09:00.** Arrantza lehiaketa Oria ibaian 6 eta 14 urte bitarteko lehiakideentzat.
 - **09:30.** Loatzo musika eskolako txaranga alaituriko diana izango da.
 - **12:00.** Sagardo dastatzea, sardina eta txorizoarekin, eta Asier Unsain eta Irma Karrera-aren trikiti doinuek alaituta.
 - **17:00.** Baltsa jaitziera, Oria ibaian.
 - **18:00.** Umeen jolasak plazan.
 - **19:00.** Olatz Zubeldia eta Ane Balerdiren eskutik trikiti doinuek izango dira, plazan.
 - **19:00.** Herriarren arteko Toka Txapelketa egingo da helduentzako, plazan.
 - **21:00.** Herri afaria kultur etxean, sagardotegi menua izango da.
 - **00:00.** DJ Imanol
- ### UZTAILAK 15, IGANDEA
- **09:30.** Kalejira berezia, lehen-go eta oraingo herriko txistulari-ekin.
 - **12:30.** Alegiako Sutarrri dantza taldearen emanaldia herriko plazan. Emanaldian zehar, Juan

Joxe Agirreari omenaldia egingo zaio.

- **17:00.** Umeentzat meatzariaren jokoak Kulki taldearen eskutik, eskolako atarian.
- **18:30.** Herri kirolak izango dira Larraitx auzoko plazan. VII. Txintxarri Saria: 1. taldean, harrijasotzaleak: Aimar Irigoien eta Izeta III.a eta trontzalarriak: Josune



Gorostidi eta Lurdes Insausti. 2. taldean, harrijasotzaleak: Izeta II.a eta Izeta IV.a eta trontzalarriak: Itziar Nuñez eta Ana Lopez. Harriak: 125 kiloko zilindro kopa, 112,5 kiloko kubikoa, 100 kiloko zilindro-zaharra eta 100 kiloko bola izango dira. Tartean, Euskadiko Lasto Jasotze Txapelketa jokatu da.

- **20:00.** Los Rubi taldearekin dantzaldia, plazan.
- **21:00.** Zahagi ardoa, zubian.
- **22:30.** Bertsolarien txanda izango da, kultur etxean: Andoni

Egaña, Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi eta Agin Rezola. Gai-jar-tzailea: Felix Irazustabarrena.

- **00:00-03:00.** Los Rubi taldearekin dantzaldia, plazan.

UZTAILAK 16, ASTELEHENA

KARMENEGUNA

- **09:00.** Giroarte dultzaina taldeak alaituriko diana, eta erretiratuek antolatutako mendi martxari hasiera emango zaio.
- **10:00-14:00.** Haur parkea izango da eskolako atarian.
- **13:00.** Apar festa.
- **11:30.** Erretiroa hartuta dute-mentzat hamaiketako.
- **14:00.** Umeen bazkaria herrikoia izango da, plazan.
- **15:00.** Umeentzat altxorraren bila joko izango da, eskolako atarian.
- **17:00.** Haur jaialdia eskolako atarian.
- **Ondoren.** Merienda eta jokoa izango dira.
- **19:00.** Dantzaldia Iratzar taldearekin, plazan.
- **21:00.** Zahagi ardoa, Bulebata jokatu da.
- **23:00-02:00.** Dantzaldia izango da Iratzar taldearekin.
- **00:00.** Txintxarrien hotsarekin agurra egingo diete aurtengo jaiak.

↓ Alternatiboak

UZTAILAK 12, OSTEGUNA

- **18:00.** Xantosen omenezko finala.
- **19:30.** Sagardo dastatzea.
- **21:00.** Zahagi ardoa.
- **22:30.** Elortza eta Larrañaga trikitilariak.

UZTAILAK 13, OSTIRALA

- **21:00.** Zahagi ardoa.
- **01:00.** Dj festa: Beba&Panda, Alexander Loop, Xugua eta Depresion.

UZTAILAK 14, LARUNBATA

- **21:00.** Zahagi ardoa.
- **23:00.** Kontzertuak: Glaukoma Sound System, Atila y los Unos eta Bad Sound System.

UZTAILAK 15, IGANDEA

- **15:00.** Herri bazkaria.
- **Ondoren.** Poteoa egingo dute jolasak barne.
- **21:00.** Zahagi ardoa.
- **23:00.** Manillares Iturriaga taldearen kontzertua.

UZTAILAK 16, ASTELEHENA

- **21:00.** Zahagi ardoa.
- **22:00.** Herriko bertsolariak.

Irudia ◊ Berastegi**GAZTETXOAK ERE AUZOLANEAN**

Burdina taldeak gaztetxoei zuzenduriko auzolandegia burutu zuen iragan larunbatean Berastegin. Hain zuzen ere, Leitzarango bailaran kokaturiko Txotan meategian ari ziren, sasiak, belar gaiztoak edota zaborra garbitzen. Taldeko arduradunen azalpenei esker, gaztetxoek meatzean gure arbasoek egiten zuten lana ezagutu zuten. Larunbat honetan Andoaingo Goiburu auzoko zaharberritze lanekin hasiko dira. **HITZA**

Irudia ◊ Leitza**NAFARROAKO KONKISTA GOGOAN**

Herenegungo egunez, duela 500 urte sartu ziren Goizuetatik Gaztelaren aldeko gudarriak, eta ondoren hasi zen Nafarroako konkista. Bada, Nafarroa Bizirik ekimenaren barruan, urteurren hori gogoratu zuten, herenegun, Goizueta eta Leitzako hautetsiek eta hainbat herritarrek. Ibero torrean eta Olazaharran oroitarria ezarri zuten, eta ondoren aureskua dantzatu. **HITZA**

Hiru film aire librean ikusteko aukera izango da, ostegunetan

Eneko Aritzaren Lagunak kultur taldearen 'Sua' filma izango da gaur gauean, San Bartolome plazan

Iñigo Terradillos Ibarra

Udako gauetarako ekimen proposa antolatut du Ibarra kultur sailak: zinema aire librean. Gaur hasita, eta datozen bi ostegunetan, hiru film ikusteko aukera izango da, San Bartolome plazan (Belabieta kiroldegian euria eginez gero), 22:15ean.

Sua filma emango dute gaur, uztailaren 19an *Gazta zati bat*, eta uztailaren 26an, *Basalagunak* filma.

Ibarra Eneko Aritzaren Lagunak kultur taldearen azken lana da *Sua*. *Eneko Aritz* film la-



Sua filmaren une bat. **HITZA**

burra izan zen ibartarren lana, eta horren ondoren, azken zortzi urteetan *Sua* filma egiten egon dira. XVII. mendearen hasieran dago kokatua, eta Lapurdin kokatzen da. Ehunka pertsona torturatu eta erail zituen Pierre de Lancre inkisidorearen ekintzak islatzen ditu filmak. Ekainaren 29an

Leidor zineman estreinatutako filma, eta orduan ikusterik izan ez zutenentzat aukera polita izango dute gaueko emanaldia.

Hurrengo, 'Gazta zati bat'

Hurrengo filma Idiazabal gazta, artzaintza, autodeterminazio eskubidea eta auzolana nahasten dituen *Gazta zati bat* izango da. Jon Maia bertsolariaren lana Idiazabalen abiatzen da. Herritar xume batzuk Europako indarkeriazko azken gatazka politikoa- ren zauri eta banaketa guztien gainetik misio handi bati ekingo diote: munduan zer izan erabaki ahal izateak.

Hirugarren filma, berriz, haurrei zuzendutako fantasiazko *Basalagunak* izango da. Boog izeneko hartza bere zaintzailearekin bizi da. Bere ohiko habitatetik urrun bizi da, baina bera zoriontsu da.

→ Laburrak**Historialarien biltzarrean parte hartzeko aukera**

LEITZA ◊ Nabaraldeko antolatuta, Euskal Herriko Historialarien III. Biltzara egingo dute, irailaren 7tik 16ra. Arrasaten, Leitzan, Agoitzen eta Iruñean izango dira saioak. Leitzako saioan soilik (20 euro) parte hartzeko aukera dago, edota biltzar osoan (60 euro). Izena eman daiteke alke@leitzakultura.net helbidean edo 686 906 144 (Juan Mari Barriola) zenbakian.

Alurr Dantza Eskolan matrikulazioa zabalik

IBARRA ◊ Alurr Dantza Eskolan datorren ikasturterako izena eman daiteke, iraila bitarte. Alurren bulegoan nahiz kultur etxean daude eskuragarri matrikulazio orriak. Argibide gehiago nahi duenak www.alurr.net webgunera jo dezake.

Festa batzordearen bilera orokorra egingo dute, etzi

IBARRA ◊ San Bartolome jaietako antolaketa lanekin jarraitzeko, gaur, 19:00etan, lan talde guztiez osatutako festa batzordearen bilera egingo dute, udaletxeko batzar aretoan. Elkartei eta lan taldeetan parte hartu nahi duten herritar guztiei bertaratzeko deia egin die udaleko kultura sailak.

Sahararren aldeko Indoor Bizikleta Topaketa

LEITZA ◊ Leitzako Saharar Herriarekin Elkartasuna taldeak Indoor Bizikleta Topaketa antolatut du Leitzan, uztailaren 28an. 16:00etatik aurrera, 35 minutuko lau saio egingo dituzte. Saio bakarrean parte hartzeko 10 euro ordaindu beharko da, bitan parte hartzeko 12, hirutan 14 eta lautan, 16. Izena emateko 649 522 368 zenbakira deitu beharko da. Sahararrei elkartasuna adieraztea du helburu ekimenak.

◉ Hilberriak eta urteurrenak**ESKELAK**

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

JOXEPA LARDIZABAL ESNAOLA
(Ezkerreko Batasunaren abokatu)

Herenegunetik aurrera, bi urte dituela, Euzkoak eta Aita Santuaren Bederatziaketa hartu ondoren

- Golan bego -

IRUETXETAKO SENDIAK ESKER OÑEZ GOGOAN IZANGO ZAITUGU

Oroniz bat eskertzen dituzte heren animaren aldia, eta animen etor zaituzte GAIUR, OSTEGUNA, arbasoetako ZAZPIETAN, Segurako ANDRE MARI JASO-KUNDEAREN paroki alaian, goxoa sumen dela egingo den hitza-ekitalerria. Astelearekik, mila esker.

SEKURA, 2012ko uztailaren 12a

Helbidea: Ezkerreko Batasuna
Oroniz: Joxepe Lardizabal SORENA BELATOKIAN egingo da.



GOIZA	LAINTUTUA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	26°
HOTZENA	16°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak: BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernalde, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-k Bai Euskarari



Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Igarondo Urpekoak bikain, Espainiako Txapelketan

Tolosako taldeak 13 domina irabazi ditu hegats igeriketako junior eta senior mailetan

Rebeka Calvo Tolosa

Tolosako Igarondo Urpekoak taldeko hegats igerilariak «prime-ran» ibili ziren pasa den asteburuan Hospitalet de Llobregat (Herrialde Katalanak) herrian ospatutako junior eta senior mailetako Espainiako Txapelketan. 13 domina lortu zituzten guztira: urrezko bost (Irati Lakunza juniorrak 100 eskafandra eta 400 eskafandra, Mara Varelak 100 eskafandra eta 50 apnean eta Patxi Mongek 100 eskafandran), zilarrezko sei (Irati Lakunzak 50 ap-

nean, Mara Varelak 100 ur-azalean, Amaia Arreguik 400 eskafandra eta 800 eskafandran eta Leire Ramirez, Ainhoa Tolosa, Amaia Arregui eta Mara Varelak osatutako erreleboak 4x200 eta 4x100ean) eta brontzezko bi (Amaia Arreguik 100 eskafandran eta Mara Varelak 200 ur-azalean).

Domina horiez gain 17 lehen zortzi postu lortu zituzten hegats igerilariak: Aras Karakus juniorrak bosgarren egin zuen 100 eta 200 ur-azalean eta seigarren 50 apnean; Ainhoa Tolosak bosgarren 400 eskafandran, zazpigarren 400 ur-azalean eta zortzigarren 100 eskafandran; Leire Ramirezek seigarren 100 eta 200 ur-azalean eta zortzigarren 50 ur-azalean; Gregorio Mancisidorrek seigarren 400 eskafandran eta zortzigarren 100 eta 800 eskafandran; Patxi

Mongek seigarren 50 apnean; Amaia Arreguik zazpigarren 50 apnean; Inge Zubeldiak zazpigarren 100 ur-azalean; Gregorio Mancisidor, Jokin Zubizarreta, Mikel Esteban eta Patxi Mongek osatutako erreleboak seigarren postua 4x100ean; eta Asier Aranburuk eta azken hirukoteak osatutako erreleboak zortzigarren postua 4x200ean.

Ur-azalean hobekuntza

Honela beste behin ere tolosarren ur-azpiko nagusitasuna begi bistan geratu dela diote taldeko arduradunek eta baita ur-azalean egin den hobekuntza nabarmena izan dela ere.

«Olatz Eizmendi, Unai Eraso eta Jon Fernandezek ere hartu dute parte txapelketa honetan eta denboraldi honetan eginiko hobekuntza erakutsi dute», esan



Igarondo Urpekoak taldeko kideak, Hospitalet de Llobregaten. HITZA

dute. Emaitza ikusita pozik agertu da Ion Espina entrenatzailea urte honetan lortutako emaitze-kin eta hegats igerilariak egiten ari diren «lan gogorarekin».

Denboraldia ez dute amaitu hala ere, eta Irati Lakunza eta

Mara Varelak gogor lan egin beharko dute oraindik.

Izan ere, Irati Lakunza Espainiako selekzioarekin junior mailako Munduko Txapelketan lehiatuko da eta Mara Varela Europako Txapelketan.

Agenda

DEIALDIK

- **Tolosa.** Uztaileko azken larunbateko kantu jirarako entsegua egingo dute gaur, 20:00etan, musika eskolan. Uztailearen 28ko Tolosa Kantari kantu jiran abestuko dituzten kantekin egingo dute entsegua, eta Tolosako txistulari bateranoek ere hartuko dute parte.
- **Tolosa.** Gazte Topagunearen Uda Gaztea ekimenaren barruan, gaur, surf ikastaroa, 10:00etatik 13:00etara.
- **Aduna.** Asvineneak barreterapia ikastaroa antolatu du hilaren 14 eta 15erako. Aitor Navarro da irakaslea, eta ikastaroak 45 euro balio du. Izena emateko 627 98 55 68 telefono zenbakira

ra deitu behar da. Bestetik, antzerki inprobisazio ikastaroa ere antolatu du hilaren 16, 17 eta 18rako. Irakaslea Emmanuelle Thomé izango da, eta 622 86 79 48 telefono zenbakira deitu behar da izena emateko. Bukatzeko, hilaren 24, 25 eta 26an, 11:30etik 13:15era eta 16:00etatik 17:45era, umeentzako zirko ikastaroa antolatu du. Eneritz Otegi eta Virginia Maffasantzi izango dira irakasleak, eta 50 euro balio du. Izena emateko 689 79 24 69 edo 605 41 08 80 zenbakietara deitu behar da.

■ **Tolosa.** Oargi mendi taldeak Sorriara irteera antolatu du datorren astebururako. Ostiralean aterako dira Tolosatik Vinuesa-ra joateko, eta larunbatean La-

guna Negratik Urbion mendia igoko dute. Izena emateko 688 69 86 42 telefono zenbakira deitu behar da edo info@oargi.com helbidera idatzi.

■ **Tolosaldea.** Lehiberrik hurrengo hilabeteetarako hiru programa antolatu ditu: Cheque+innova (hiru langiletik gorako enpresentzat), Legescan eta Eskoscan. Enpresei zuzendutako ikastaroak dira, eta izena emateko Tolosaldea Garatzeneko Enpresa sailarekin jarri behar da harremanetan; 943 65 45 01 telefono zenbakira deituta edo enpresa@tolosaldea.net helbidera idatzita. Ikastaroak egiteko 250 euro ordaindu behar dira, baina Legescan eta Ekoscan ikastaroen ka-

suan, Lehiberriko kideek doan egin ahal izango dituzte.

ERAKUSKETAK

- **Alegia.** Mirari Bengoaren margolanak ikusi daitezke, herriko jaia arte, Jubilatuen tabernan.
- **Tolosa.** Ni Pinotxo naizera-kusketa ikusi daiteke, Topic zen-troan, irailaren 23a arte. Ostiralean eta larunbatean bisita antzeztuak eskaintzen dituzte.

ZINEMA

- **Tolosa.** Zine forumean, gaur, *Un amour de jeunesse* filma jatorrizko bertsioan, 19:15ean eta 21:45ean.
- **Ibarra.** *Sua* filma ikusia ahal

izango da gaur, 22:15ean, herriko plazan euria egiten ez badu, bestela Belabietako kiroldegian ikusi ahal izango da.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amaroitz auzoa, 9. Telefonoa: 943 67 51 18.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **4 afari pare** ditu



16. GARAGARDO
AZOKA

Irrintzi elkartearen eskutik
Amasa-Villabonan
Txermingo Ikastolan
18:00etatik aurrera



Zozketan parte hartzeko deitu osteguna 14:30ak baino lehen **943 65 56 95** telefono zenbakira.